

BASA Bur'Ja

175. ALEA - 2025EKO OTSAILA

BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA



www.basaburua.eus
udala@basaburua.eus
948 50 30 35

AIZAROZKO KONTZEJUA SORTU DA

Nafarroako Gobernuak Aizarotz kontzeju izendatzen duen foru dekretua onartu du. Urtarrilaren 22an sinatu zuen eta otsailaren 7an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu du (NAO). Udalak, kontzejuek eta Aizarozko herritarrek sei urte baino gehiago daramatzate lanean Aizarotzek gainontzeko herrien eskumen berberak izan ditzan eta, ezaugarri guztiak betetzen zituen arren, oztopo askorekin egin dute topo. Azkenean eta zorionez, lortu dute. 40 urtetan Nafarroan sortuko den lehenengo kontzejua izanen da.



NACE EL CONCEJO DE AIZAROTZ

El Gobierno de Navarra ha aprobado el decreto foral que constituye el concejo de Aizarotz. Aprobado el 22 de enero, el 7 de febrero se ha publicado ya en el Boletín Oficial de Navarra (BON). El Ayuntamiento, los concejos y las vecinas de Aizarotz llevan más de seis años trabajando para que Aizarotz tenga las mismas competencias que el resto de pueblos, y, aunque cumplía con todos los requisitos, han enfrentado muchos obstáculos, pero, ahora, por fin, han logrado que el concejo de Aizarotz sea una realidad. Será el primer concejo que nazca en Navarra en 40 años.

IRUÑEKO MANIFESTAZIORA JOATEKO AUTOBUSAK

Emakumearen Nazioarteko Egunaren egitaraua prestatzen ari dira Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun sailetik Udaletako Berdintasun arduradunekin batera. Aurtengo berritasun nagusia Iruñeko manifestaziora joateko jarriko diren autobusak dira. Manifestazioa martxoaren 8an, larunbatekin, 13:00etan izanen da Iruñerriko Mugimendu Feministak deitua. Autobusa Jauntsarastik aterako da 11:10ean eta bost euroengatik eman daiteke izena Mikaela Elizalde zinegotziari idatziz edo Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko webgunean (QRa behean). Iraizotzen eta Ostitzan ere hartuko du jendea eta Iruñetik 14:30ean itzuliko da. Izena emateko azken eguna otsailaren 28a izanen da.

Bestetik, martxoaren 8tik haratago brigada moreak antolatu nahi dira. Helburua herrietako festetan eraso sexistak ekiditea eta hauei aurre egitea da. Brigada moreak sortu aurretik udalen laguntzarekin prestakuntza saioak antolatu dira. Basaburuan, martxoaren 7an izanen da 19:00etatik 21:00ak bitartean. Apeztegierriko ganbaran. Saio hauek mistoak izango dira eta, herritar orori zuzenduak izan arren, bereziki interesarria da festa batzordeetako kideen eta gazteen parte-hartzea. Miren Orozko berdintasun gaietan adituak eskainiko ditu. Indarkeria sexista hobeki ulertzeari, identifikatzea eta honen aurrean nola erantzun jakitea da saioen helburua.



AUTOBÚS PARA ACUDIR A LA MANIFESTACIÓN DE PAMPLONA

El Servicio de Igualdad de la Mancomunidad de Servicios Sociales junto a los responsables municipales de este área están diseñando el programa para el Día Internacional de la Mujer. Este año la novedad principal es que se ha organizado un autobús para acudir a la manifestación de Pamplona. Organizada por el Movimiento Feminista de Iruñería, comenzará a las 13:00 del sábado 8 de marzo. Por ello, el autobús saldrá de Jauntsarats a las 11:10. Con un coste de 5 euros ida y vuelta, se puede escribir a la concejala Mikaela Elizalde o se puede dar el nombre en la página web de la mancomunidad (abajo el QR) antes del 28 de febrero. El autobús, que también tendrá parada en Iraizotz y Ostitz, regresará de Pamplona a las 14:30.

Por otro lado y más allá del 8 de marzo, se quiere impulsar la organización de brigadas moradas. El objetivo es prevenir y hacer frente a las agresiones sexistas, especialmente en las fiestas. Con ayuda de los Ayuntamientos como el de Basaburua, Antes de constituir estas brigadas se hará una formación. En Basaburua será el 7 de marzo entre las 19:00 y las 21:00 en Apeztegierrri. Estas sesiones serán mixtas y aunque están dirigidas a toda la población es especialmente interesante la participación de los miembros de las comisiones de fiestas y de las jóvenes. La experta en Igualdad Miren Orozko guiará estas sesiones que tienen como objetivo entender mejor la violencia sexista, identificarla y saber cómo responder mejor ante ella.

**Autobusean izena
emateko/
Para apuntarse al
autobús**



BERDINTASUNA ERREALITATE

Basaburuko Udalak Nafarroako Toki eta Lurralte Erakundeetako Berdintasun Teknikarien Sareak zabaldutako mezua onartu du mozio batean. "Genero berdintasuna oraindik lortu gabe dagoen justizia sozialeko auzi bat" dela azpimarratu dute "legeek eta araudiek berdintasun formal aitortu arren, berdintasun erreala ez delako lortu". Eta hori baieztagatzen duten Nafarroako hainbat datu zabaldu dituzte: "Emakumeek gizonek baino %20 gutxiago kobratzen dute, eta %36 besterik ez dira lidergoko postuetan. Emakumeek betetzen zitzuten, 2020an, lanaldi partzialeko enpleguen %80 baino gehiago" eta estatistiken arabera, "denbora bikoitza ematen dute zaintza eta etxeko lanetan". Arrakala hori areagotu egiten dela azpimarratu dute, emakumeak migratzaileak eta LGTBIQ+ kolektibokoak direnean eta desgaitasunen bat dutenean. Horregatik, honako konpromisoak hartu dituzte, besteak beste:

1. Erantzukidetasuna sustatzeko sentsibilizazio programak eta kanpainak abian jartzea.
2. Gure erakundeetako generoari loturiko soldatu-arrakalaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak garatzea, eta bermatzea lan-hitzarmenek eta -akordioek emakumeen lanaren balorazio justua islatzen dutela, bereziki sektore feminizatuetan.
3. Ordaindu gabeko lana bizitzaren iraunkortasunerako ardatz nagusi gisa aitortzen eta baloratzen duten tokiko politikak ezartzea, eta pertsona guztientzako zerbitzu publiko unibertsalak bermatzea.



POR UNA IGUALDAD REAL

El Ayuntamiento de Basaburua ha aprobado en una moción el mensaje difundido por la Red de Técnicas de Igualdad de las Entidades Locales y Territoriales de Navarra. Destacan que "aunque las leyes y normas reconocen la igualdad formal, no se traduce en igualdad real". Y aportan varios datos de Navarra: "Las mujeres ganan un 20% menos que los hombres y solo el 36% de ellas alcanzan puestos de liderazgo. En 2020 eran las mujeres las que ocupaban más del 80% de los trabajos parciales" y "ellas ocupan el doble de tiempo en las labores domésticas y de cuidado" según las estadísticas. También señalan que esa brecha se incrementa cuando las mujeres son migrantes o LGTBIQ+ o tienen alguna discapacidad. Entre otras medidas se comprometen a:

1. Diseñar y poner en marcha campañas y programas de sensibilización para impulsar la corresponsabilidad.
2. Desarrollar medidas para el seguimiento y la evaluación de la brecha salarial de las instituciones, y garantizar que los acuerdos laborales hacen una valoración justa del trabajo de la mujer, sobre todo, en sectores feminizados.
3. Implantar políticas locales que valoren y reconozcan los trabajos no remunerados como imprescindibles para la sostenibilidad de la vida, y garantizar el acceso universal a los servicios públicos de todas las personas.



OTSAILAREN 28AN TERA PIA BAKARRIZKETA FEMINISTA

Historian zehar emakumeak itzalpean egon direnez, bakarrizketa honen bidez, Lorena Arangoa clownak horietako zenbait istorio azaleratuko ditu. Emakumezko pertsonaia historiko horiek talde terapia saio batean elkartuko dira antzezlan honetan. Martxoaren 8ko egitarauaren barruan eta Basaburuko Udalak lagunduta antolatutako ekimena da. Otsailaren 28an, ostiralairekin, Apeztegiberrin.

EL MONÓLOGO FEMINISTA TERA PÍA EL 28 DE FEBRERO

La historia ha dejado a un lado las historias de mujeres y con el objetivo de rescatarlas la clown Lorena Arangoa ha creado este monólogo. En esta obra veremos a algunos de esos personajes femeninos de la historia en un grupo de terapia. Se ha organizado dentro del programa del 8 de marzo y con ayuda del Ayuntamiento de Basaburua. Será el 28 de febrero, viernes, en Apeztegiberri.

BASO BABESLEAREN OBRAK HASI DIRA

Umeei zuzendua, mitologian oinarritutako jostaketetarako gune bat izanen da, Oihanabal basoan. Lehenengo faserako Udalak 49.997,3 euroko diru-laguntza jasoko du. Bestetik, Txokolateroren etxearen zaharberritze lanak ere aurrera doaz.

COMIENZAN LAS OBRAS DEL BOSQUE PROTECTOR

Dirigido a niñas y niños es un especie de juego basado en la mitología. Se ubica en el bosque Oihanabal y la primera fase de los trabajos cuenta con una ayuda de 49.997,3 euros que recibirá el Ayuntamiento. Por otro lado, siguen avanzando las obras de rehabilitación de la casa de Txokolatero.



PALA ETA FRONTENIS TXAPELKETA HASI DA

Pala eta Frontenis txapelketa Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak antolatzen du, eta otsailaren 14an hasi zen. Osotara 23 bikotek eman dute izena: emakumezko frontenisean, bostek; Palako lehenengo mailan, seik; zortzik, bigarren mailan; eta lauk hirugarren mailan.

CAMPEONATO DE PALA Y FRONTENIS

La Comisión de Deportes de Basaburua e Imoz organiza este campeonato que ha comenzado el 14 de febrero. Son 23 parejas las que se han apuntado en total: en frontenis femenino, cinco; Y, en pala, seis parejas en primera; ocho en segunda; y cuatro en tercera.

OTSAILA/ FEBRERO

1	2
3	4
5	6
7	8
9	
10	11
12	13
14	15
16	
17	18
19	20
21	22
23	
24	25
26	27
28	

- TERA PIA APEZTEGIBERRIN, JAUNTSARATS

- PALETA ETA FRONTENIS TXAPELKETA

MARTXOA/ MARZO

1	2
3	4
5	6
7	8
9	
10	11
12	13
14	15
16	
17	18
19	20
21	22
23	
24	25
26	27
28	29
30	

- PRESTAKUNTZA: INDARKERIA SEXISTA, APEZTEGIBERRIKO GANBARAN, 19:00

- M8KO AFARIA AIZAROZKO OSTATUAN

- EMAKUMEAREN EGUNA